


Ariketa praktikoa

Bena-barneko (IV) perfusioa



Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.

Ariketa praktikoa

Benabarneko (IV) perfusioa

31 urteko eta 65 kg-ko emakume bat ospitalean ingresatu dute traumatismo anitzengatik. Bigaren astean metizilinari erresistentea den *S. aureus* bakterioak eragindako infekzioa dela eta sukarra dauka eta bankomizina administratzen zaio. Bankomizinarenean banaketa bolumena 0,9 L/Kg da. Iraizketa konstantea kreatinina argitzapenaren (Cl_{Cr}) menpe dago:

$$K_e (h^{-1}) (mL/min/Kg) = 0,695 (Cl_{Cr}) (mL/min/Kg) + 0,05$$

1. Kreatinina argitzapena 120 mL/min dela jakinda, bankomizina dosi egokia kalkulatu (ordu bateko bena-barneko perfusioan administratzeko) perfusioa amaitu ondoren 2. orduan kontzentrazio plasmatikoa 22 mg/L izan dadin,
2. Aurreko atalean kalkulaturako dosia administratzen zaio. Bat-batean giltzurrun gutxiegitasun akutua dela eta gaixoaren egoera aldatzen da. Kontzentrazioak neurtzerakoan ikusten da 22 mg/L lortu beharrean 35 mg/L lortu direla. Hortaz aparte, ikusten da perfusioa amaitu et 37 ordu beranduago kontzentrazioa 18 mg/L dela. Perfusio abiadura kalkulatu baldintza hauek betetzeko:
 1. Ordu bateko perfusioa
 2. perfusioa amaitu ondoren 2. orduan kontzentrazio plasmatikoa 22 mg/L izan behar da